

ANAITASUNA

B I Z K A I A

171 gn. zenb. — 1968, urrillak 30 — 4 pta.

Torre, 3, 1.^a - Bilbao (5). Tel. 24 14 67

ARANTZAZUKO BATZARRA

Alkartasun gogoia nagusi

Leendik esanda egoan lez, Arantzazun izan zan Euskaltzaindiaren batzarra, urriaren 3, 4 ta 5-ean. Idazle, irakasle eta euskaltzaindiakoen artean, jentea naikoa bildu* zan. Leenengo egunean larogetik gora, eta bigarreanean eta irugarreanean eundik gora zirean bilduak.

Literatura euskerearen batasunaren alde egin zituen euren itzaldiak M. Lekuona, L. Mitxelena, L. Villasante eta A. Zatarain jaunak. S. Garmendiak ezin etorria adierazo eban; eta Villasantek irakurri eban, arek bialduriko lana. Amabi euskaltzaindik bete eben maiburua. Euretirik, Satrustegi jauna izan zan moderatzaill.

Anitz* agurrezko eskutitz eta zenbait* idazlan jaso zirean, etorri ezin zirean idazleakandik.

Alkartasun giroz* artu zirean, itzei eta morfolojiari jagokezan* erabagiak. Ortografiari buruz izan zirean eztabaidarik geienak eta alkarrizketarik bizienak, H letrea onetsi* bear zan ala ez.

Luis Mitxelena, izkuntzalari bikaiña, gauzak agiri garbian jarri ebazan, eta letra orrek dituan korapilloak askatu zituan. Beste gauza askoren artean esan eban, H letrea aintxiñako agiri* zaarretan eta euskal literatura osoan agertzen dala; gaur egunean bere, zenbait* euskalkitan erabilli ta aoztuten dala; eta

gaurko idazle gazteen jokerea, letra orren alde doala. Errazoi bidez, kontra egozanetarik asko alde ipinteraiño jardun eban gure gidari argi ta jakitunak; eta mintzatu* zirean guztiei, bear zirean argitasunak emon eutsezan. Gaiñerako gaietan bere, zentzunezko aolkuz* eroan ginduzan bide ziurretatik. Euskaltzainburuak be, aolku onez eta apalkiro eroan eban bere burutzea; eta Satrustegik, ederto bideratu zituan alkarrizketak. Beronen gidaritzapean, anaitasunez beterik joan zan batzarra.

An artutako erabagiakaz liburu bat egingo da: itzaldiekin, alkarrizketen laburpen, H letrearen iztegitxu bat eta euskeraz mintzatzeko bearrezkoen direan 1.000 berbakaz.

Jakiña, Euskaltzaindiak ezin dau iñor bear-tu, artu direan erabagiak nai ta naiez erabilte-
ra, beretzat ofizialki artuarren bere. Orregaitik, batzarraren bukaeran* agiri* au irakurri zan.

Arantzazuko batzarra egin ondoren, Euskaltzaindiak eskerrak agertu gura deutsez, etorri direan naiz euren eritxiak bialdu dituen guztiei.

Danon ustez, gure izkuntzearen batasuna dogu gauzarik bear bearrezkoena. Batasuna, jakiña, ez da Euskaltzaindiak egin daiken gauzea, eta arabere* gitxiago bat batean egin daitekera. Batasun ori —eusker a idatziaren



Luis Mitxelena, izkuntzalari bikaiña.

- **ARANTZAZUKO ERABAGIAK**
4 gn. orriald.
- **GALDAKANOKO EUSKAL JAIA**
6-7 gn. orriald.
- **EUSKAL MUSIKA ARIÑAREN GATXA
TA ETORKIZUNA**
10 gn. orriald.

batasunaz mintzaten* garean ezker— euskal idazle ta irakasleen eskuetan dago, Euskaltzaindia gidari ta laguntzaill dabela.

Atsegin artu dau Euskaltzaindiak, alkarrizketa onetan agertu dan giroaz* eta alkarlanerako gogoaz; eta uste dau, gero bere, guztion laguntzeagaz, bere eginkizuna beteko dauala.

EUSKALTZAINDIA

IGORRETA

Gure jaiak be, amaitu dira. Ona emen zelan izan diran.

San Migel bezperan. Iraillaren* 28-an, arratsaldeko bostak inguruan, sekulako asto ariñketak. Lau asto presentatu ziran. Gero, gaztediarentzako erromeria.

San Migel egunean. Goizean, meza nagusia: erriko seme abade diranak, gitxi; bertoko abadeak be ez; sermoia, Don Sebastianek, Durangoko artzipresteak; au be, De Gaullen antzera, auzoa konpontzeko prest.

Meza ostean, dantzari talde ederra: bertoko txikiak, neska ta mutil. Ederto, mutillak! Jarraitu gogor! Gero bertsolariak: Enbeita, Lopategi ta Azpillaga. Ze ederto! Azkenez, esku pelotako txapelketea bertoko gazteen artean. Arratsaldean, euria ugari.

Urriaren 5-ean. Zapatua. Arratsalde erdian, aizkolariak. Irabazi ebenak, leenengo Julen Lejardi, Bolibarkoa, ta bigarren Mañariar bat. Azkenez, «Central Forestal»-ekoak esibiziño bat egin eben euren makiñakaz. Gauean berbenea, «Naikari» ta «Baikoa» taldeak alaituta, frontoi barri ederrean. Euria egiten dauanerako, ba dakigu nora joan.

Urriaren 6-an. Domekea. Meza ederra cuskeraz. Gero dantzariak. Azkenez euskal kanta barrien abestaldia, Abel Enbeitak eta beste batek presentatuta. Bittor Eguirrola, Saenz anaiak, Maite Idirin, «Beti Alai»-koak eta Estitxu: danak txalotuak, eskuak apurtuarte. Jentetalde galanta, ia irurak arte egon zan entzuten. Berandutxu uste dogu. Ordu bietarako amaitu bear eban, ze askok urrun joan bear eben jatera.

Arratsaldean, dantza ta aurreku norgeiagokea. Azkenean, beti legez, erromeria. Parkatu, zeredozer itxi badogu, ipiñi barrik.

Kezka batzuk daukoguz, eta mesedez artu gogoan: Igorreta joan daitela beti aurretik. Danak batu komisiñoan, igaz legez; ze arerioak banatu ta apurtu gura dabe gure erriko gazteen alkartasuna. Euskal abestiak, eguerdian ondo amaitu; edo ostean, illuntzerako itxi, ze nok daki jente geiago etorriko zan.

Buru baten faltea egon dala ikusi dogu: danak agintzen, eta ori gauza motza da. Datorren urterako, Jaungoikoak gura badau, Mikel Sopolana be gure artean izango dala uste dogu.

GOIURI-AXPE

ARANTZAZU

Eguneroko lan neketsua itxirik, Arantzazura jo dot, aldi baketsu ta atsedan

nasaiaren bila; baita bide batez, ANAITASUNA-ren irakurleentzat zerbait argitzera.

Dana neurtuta, mugarrিতта dogun aldi onetan, egia argia izanarren, ertz zorrozduna da; ta tamalez*, ezin dogu erabili bear litzaken legez. Baina emendik ezten eta andik akulu, ea zerbait biribiltzen dogun.

Erri onetan, ondo gertu* ondoren, bigarren aldiz jo dau «satorrak», askorentzat galerazota dagoan lur samurrean. Leenagoko musturkadan, erdi itsu jo ebalako edo, ez eban biderik zabaldu; baina oraingoan, ondo gertuta*, oitura dauan legez, aurpegia agertu barik eta ixilean lan egin deusku, baita lur gozoa aurkitu bere.

Zer ekarriko ete deutso erriari maltzurkeria onek? Gerokoa, geroak esango deusku; baina oraingo egia biribila, auxe da: Aita J. Jose erritik ataratea lortu dabela, erritar geien geienen biotzak negarrez itxirik, eta gaztedia umezurtz.

Eta orain ona emen Aita J. Josek egin dauzan gaiztakeriak: Eleizea garbi, apain eta txukun ipini dau; gaztediari eleizarako ta lagunarterako ainbat abesti eder irakatsi; gaztedia batzartu ta erritar naiz erbesteko andrazkoak errosario osteetan kartetan jokatzeko teilatupea erosotu; telebisinoa be laster izango eban erriak, neguko domeka arratsaldeak anaitasunean emoteko. Baina ara zer egin deuskun eleiztarren artean ixil eta makur dabilen deabruaren buztan eta adarrak.

Aurpegia garbi ta biotza nasai dauanak, ez dau zetan ibili ixilka ta ilunean. Leenengo ekitaldia «azpitikoak» irabazi dau; baina bigarrena irabazteko laguntasunik ez deiola emon gure Jaungoikoak, bakotxa bere bideetatik zear ikusterik gura ez badogu. Etorriko danak zereginik naikoa izango dau, iru-lau agindugurakori jaramoten asten bada. Dana dala, ondoetorria datorrena, ta agur bero beroak Aita J. Joseri.

A. LANDAJUELA

MENDEXA

ANTZEZLARIAK

Antzezlari* taldeak, irailaren* azkenengo egunean egin eban batzarra, negurako antzerkiak* gertuteko. Leenengo gertuko* daben antzerkia, «Etxaun» izenekoa izango da.

Oraingoan, utsune aundia daukagu taldean. Lau lagun ezkondu egin dira, eta erritik kanpora bizi izaten alde egin dabe. Euretariko bat, Xabier Txakartegi, taldeko zuzendaria ta antzezlari bikaiña; bere ardurapean egon da taldea, eta antzerki guztietan berak egiten izan dau paperik aundienetariko bat.

Espe Laka, bere emaztea be, taldekoa zan. Bardin beronen aiztea, Begoña Laka. Au, Gardata auzotegiko Zezilio Lekerikabeazkoagaz ezkondu da. Bikote biak, urriaren 5-ean artu eben ezkontzako sakramentua. Eta agostuaren 31-n, taldeko antzezlari trebea izan dan Petra Plaza, Izpazterreko Rikardo Bengoetxeagaz ezkondu zan. Iru bikoteok, Mendexako eleizan ezkondu ditu abade zintzoa dan Don Jose Sagarnak. Zorionak guztioi!

PELOTA LEKUA

Pelota leku barria be, amaituta dago. Datorren udan frontoi barri ederrean pelotaka egiteko aukerea izango dau jentek. Ea leen baiño zaletasun geitxuago artzen daben guztiak!

ERIoTZEA

Urriaren 8-an il zan Errementari baserriko Maria Uskola, 77 urte zituala. Goian bego!

JOSE TXAKARTEGI

DONOSTIA

GIPUZKOAREN GOTZAINA IL DA

Lorentzo Bereziartua Jauna, orain 73 urte, Bidania-Gipuzkoan jaio zan. Euskalduna ta baserritarra erro errotik.

Gaztelzen leenengo ikasteak egin, eta Comillas-Santanderen amaitu zituan. Urte batzuetan Gazteizko abadegai etxean irakasle izan zan, eta Espaiña aldera Gotzain izatera joan zan. Zaragozan leenengo, Gotzain laguntzaille; eta Siguenzan gero, Gotzain nagusi. Andik Euskal Errira etorri zan, Donostiako Gotzain izatera, 1963-an. Bertan emon ditu azken urteak, eriotzeak eroan arte.

Bereziartua Jaunak bere abadegai esan eutsen, Gipuzkoako abade izateko, euskera jakitea bearrezko zala; eta jakin barik, Gipuzkoako abade ezin leitekela izan. Esan eban baita be, Gipuzkoarren izkuntzea euskera zala. Beronek Liturgia euskeratzeko erreztasunak emon zituan.

Bereziartua Jaunaren azkenengo Eskutitz Pastoralak, euskaldunai poz aundia emon deutse. Pastoral barriak egiteko asmotan egoan. Baiña argitaratu baiño leen, eriotzeak eroan deusku. Goian bego!

DURANGO



EUSKAL DISKO TA LIBURUEN III FERIA

Aurten be, Gerediaga Alkarteak antolatuta*, Durangon egingo da Euskal Liburu ta Diskoen III Feria, zemendiaren* 1, 2 ta 3-an.

Egun orreitan, Santa Maria eleizako aterpean ipiñiko dira standak, goizeko bederatzitik erdiegatik ordu bata arte, ta arratsaldean lauretatik bederatzia arte. Bigarren egunean, zapa-tuan, arratsaldean bakarrik, asteguna dala kontuan arturik.

Oraindiño ez dakigu zeintzuk editorialak joango diran; baiña seguru asko, Euskal Errian dagozan guztiak edo geienak izango dira, feria au entzute aundikoa da ta.

Durangoko feria onetan, eta jentea batzeko, aurreko urteetan egin zan lez, denpora-pasak izango dira, aurretiaz zabalduko dan programeagaz.

Gerediaga Alkarteak, lan andia egiten dau Durangon eta bere inguruetakoko errietan; eta feria onen bidez, sortu erazo ta asetu gura dau jentearen kultura gosea.

EIBAR

JAKINTZA ASTEA

S. C. R. Arratek eratu, zemendiaren* 10-tik 16-ra Jakintza Aste bat izango dogu. Aurten leenengo astea da, ta apalki jardun bear izan dogu. Dana dala, beste saio* artean lau itzaldi interesgarri izango doguz.

Astelenean, Joan Mari Torrealdaiyek *Euskera Idatziaren Batasunari* buruz berba egingo dau. Gaur egun, batasunari gai jardungarriena deritxogu. Batasuna premiazkoa dogu euskerearen etorkizunerako. Euskaltzaindi osoa ta euskal idazleok, guztiz murgildurik dagoz arazo onetan.

Martitzenean, Rikardo Arregi izango da izlari. *Euskal Idazleen Eragozpenak* aitatu deuskuz. Batasuna praktikan jarri bear dabenak idazleak diran ezker, gai* au Torrealdaiyeren itzaldiaren betegarri lez artu daikegu.

Eguastenean, irukote au amaitzeko, Andoni Lekuonak erabiliko dauan gaia, *Euskerea ta Erri Nagusiak* izango da. Euskerearen gaurkotasanaz, agerbideren batzuk azalduko ditu. Gaurko bizimoduan, erri nagusietan batez be, euskal giroa* galdu ez daigun.

Barikuan, azkenik, gure errikide Juan San Martiñek *Euskal Poesiaz* jardungo dau. Euskal Poesia indar barriaz berbiztu dalarik, barriro be gai erabilgarritzat dogu.

Eibartarrok abesti jaiak ta bestelako euskal jaialdiak betetzeko naikoak garala, amaika bidar ikusteko aukera izan dogu. Ez oster a itzaldi ta kultura jardunetan, ezta urrik emon be. Ez gaitez ardurabakoak izan. Gure euskalduntasuna jakintza arloetaruntz bideratu daigun. S. C. R. Arrateko saloiak irureun inguru jarrileku daukaz. Eibarko euskaldun ugariok beteko al ditugu.

Deitua gelditzen zara.

ERATZAILLEAK

LURDES IRIONDO EZKONDU EGIN DA

Leendik ebillen zurrumurrua egiaztu egin da. Lurdes Iriondo ta Xabier Lete ezkondu egin dira, urriaren 11-n, Izazkungo ermitan, Tolosan.

Barri onek benetan poztuten gaitu. Lurdes, bere parebako abotsagaz, Euskal Errian zear ibilli da, eunka jaialdietan euskal abesti barriak zabaltzen. Eta bardin Xabier Lete. Biak izan dira, ta ba dira duda barik, euskal abesti barriaren zabalkundeko oiñarri sendoak, Benito Lertxundi ta beste abeslari batzuekaz.



Lurdes eta Xabier Gazteizen, Euskal Abestiaren III Sariketa egunean. Eurakaz, Benito Lertxundi.

Eurei eskerrak, gure gaztedia, eunka, millaka kontetan dan gaztedia, euskal kutsuz betetan asi da. Iñoiz euskal jai batera joan ez diranak, orain joan doaz euskal abeslariak entzutera; ta au guztiz inportantea da, garrantzi andiko jazoorea da.

Guk uste dogu, ezkontza onek ez dituala Lurdes eta Xabierren abotsak ixilduko. Bearrezkoak doguz biak gure ezenario ta plazetan.

Zorionak, Lurdes eta Xabier!

XABIER GEREÑO

ANAITASUNA

amabosterokoa

18

Euskalerriko Anaia Txikarrak argitaratua

Zuzendaria: JUAN AZURMENDI AIZPURU

Zuzenbidea: Torre, 3, 1.º — Bilbao (5) — Tel. 241467

Urteko ordaiña: 75 peseta

Banakoa: 4 peseta

XVI urtea — 171 gn. zenb. — 1968, urrillak 30

D. L.: BI 1.753 — 1967

GRAFICAS BILBAO — Gordóniz, 28 — BILBAO-12

GAURKO KOREA

Gerra denporan eta gerra ostean izango zan; baiña gaur ez da geiago egia, liburu baten irakurritako au: «Gure samiñak eta negar malkoak, jatekoaren faltatik datoz». Koreako idazle baten berbak.

Gaur egunean, gosearen mamua* ondo batezterrean aurkitzen da. Alandaguztiberre, noizik bein, ikusi leitekez umeren batzuk euren sabelak larregi aundituta, beso labur eta anka txikiakaz.

Ezin ukatu, Koreak aintxiña aintxiñatik gose asko igaro dauala, bere 4.000 urteko historian zear, sarritan zapaldua, oinperatua izan dan lurra da ta.

Bai kantu ta bai ipuin askotan, koreatar idazleentzat erreza da gosea gaitzat* erabiltea, ze ondo dakie jakin be zer dan gosearen erpeetan egotea, agorako bidea aaztuta.

Oraindiño gaur berton, ikastoletako umetxuak, euren txiliñezko abots garbiagaz, irribarrez kantetan dabe:

«Txantxangorri, txantxangorri, zer dozu janari?»

Gu ibilli gara auzotik ekarten;

Baiña noiz ordaintzen?

Plazan erosten eta geroago ordaintzen.»

Eta baita beste au bere:

«Erbí, erbí lotsati,
Neguan zer da zure janari?»

Azken urte bi oneetan, bere barrabaskeriak egin ditu sikateak egoaldean, arrozik geien artzen dan tokian; baiña Gobernuak lagundu dau zeredozer, eta ezbeerra ez da ain txarra izan. Dana dala, gaur Seoul-era etorri ezker, gosearen arrastorik topetea ez da gauza erreza, leku batzutan pobre asko egonarren bere.

Gaurrarte eta oraindiño gaur berton be, koreatar geienak bi bidar bakarrik jaten dabe. Goizean, gure armozo denporan; eta arratsaldean, irurak edo laurak inguruan. Esan bearrik ez dago, bietan arroza jaten dana, bedarrakaz naastuta, salda apur battegaz.

Auxe da, apapuan* bizi dan jentearen janaria. Baiña onetan bere, gauzak asko aldatu dira; eta gero ta geiago iru bidar jaten da, ta ez arroza bakarrik, beste jateko asko baiño.

Koreatar izkuntzan ba dagoz alako berba barragarri asko jatekoaren kontuan. Ona emen bat: «Sikku». «Sik» arroza da, eta «ku» agoa. Zenbat ago arrozez bete bear, ainbat gizon etxe aretan, erri aretan. Emendik, «arroz agoa» edo habitantea.

Baiña, bai zera! Gaur koreatar agoetan ez da arroza bakarrik sartzen, partikarak bero euki ezker.

Orain urte bete izango da. Emengo lau euskaldunok restaurante baten sartu giñean. Oraindiño ate aurrean gengozala, an agertu zirean zerbitzariak, nor ariño

egiñeletan, irribarrez; eta an asi zirean ongietorriak eta buru makurtzeak. Ez da makala, egin bear dan gimnasia. Antxe bertan kendu genduzan gure zapatak; eta etxe barruan ibilteko, alako beste batzuk jantzita barruratu gintzazan. Ordu onean. Maiera urreratu giñeaneko, nasai jezarte-ko esan euskuen. Nire begiak bazter guztietara begiratu eben aulkien billa, baiña alperrik. Aulki barik nasai jezarte, ez da makala. Maipetik luzatu nituan neure iztarrak, etorrenaren begira. Ez neban itxaron luzaroan. Momentu baten ipiñi eben maia plateraz gaiñezka. Nik orduan ez neban kontuan artu zenbat plater izango zirean; baiña metro kuadrado biko mai aretan platerakaitik ezetarako tokirik ez egoana, ori bai da dakit.

Egun aretan, «pulkogi» eskatu genduan. («Pul» = sua; «kogi» = okelea.)

Orretarako, maiaren erdi erdian ikatz gori bat ipinten dabe, ta gaiñean burdiñezko tresna bat zuloz beterikoa. Beronen gaiñean ipinten da okelea, zati zati eginda. Bakotzak berak gura dauan beste erretan dau; eta palotxuakaz lagunduta jaten ditu zatitxuak. Okeleagaz batera artzen dira geldiro geldiro beste milla gauza: salda, bedar, sopa, arrain siku, arrain egosi, itxasbedar, sustrai, orri prijidu, eta abar eta abar. Ezin dira danak izentatu, ainbeste baitira*; danak, gozamen eta gustu

desbardiñekoak. Ikusita bere, guztiz da gatxa siñistutea. Eta dana batera ekarten deutsue maiera.

Guretzat orioa dana, koreatarrentzat pikantea da. Jatekoak pikanterik ez badauko, ez dau ezer balio. Eta bai ba, pikanteak ardaoa eskatzen dau. Ba dira iru lau ardao klase, geienak arrozagaz egiñak; maatsagaz be egiten dira batzuk; baiña euri larregi egiten dau uda denporan, eta maatsa ez da ona. Ba dago «makkoli» deitzen dan bat. Gure txakoliñagaz ez dauko zerikusirik, izenean ez bada. Ba dauko alako sagardoaren gustutxua; eta naiko ona da, besterik ez dagoanean.

Koreatarrerri asko gustetan jake edaria; eta polito edateko, oitura eder bat asmatu dabe. Esate baterako, zuk artzen dozu baso bete ardao eta ba zoaz poliki poliki edaten. Alako baten, zuk baiño leenago basoa erdi utsitu dauan bat or jatortzu, bere basoa eskinten; ta zurea oraindiño beterik egonda be, berak eskinten deutsuna dzangada baten edan bear dozu, segiduan berari barrero beteta biurtzeko. Gero, zeurea libretan dozunean, zeuk eskiñi bear deutzazu zurea.

Eskiñitako basoa artzea, laguntasuna agertzea ei da; baiña baita ardaoa polito edateko oitura ederra be.

JOSE MANUEL URIAGEREKA

EUSKALTZAINDIA

ARANTZAZUKO ERABAGI ETA LANEN AURRERAPENA

Arantzazun izan direan eta ez direan euskaltzaleak argibide bat euki daien, Euskaltzaindiak geroago eta astiroago argitaratuko dituan erabagi eta lanen aurrerapena agertu gura dogu orain.

1. Ortografiaz, Euskaltzaindikoko batzorde* teknikuak adierazo dituan puntu geienak onartuak izan dira.

2. H-ren auzian, izan direan eritxiak entzun ondoren, erdibide bat aukeratu da, asteko: alegia*, begi onez ikusiko leukela Euskaltzaindiak, letra ori bi bokal bardin naiz ez bardiñen artean erabiltea.

Onak ez dau esan gura, gorago jo nai dabenen saioak* ez direala ondo ikusiak izango.

3. Morfologiaz, batzorde* teknikuak adierazo dituan puntu nagusiak oiñarri lez artu dira. Aditzaren* auzia barriz, beste aldi baterako itxi da.

Euskal itz zaar eta barrien formak aztertutako dira, gero be gai* ori bide bardintsutik obeto lantzeko asmuaz.

«TXOMIN AGIRRE» NOBELA SARIA

Euskaltzaindiak urte birik baten eratzten dauan «Txomin Agirre» izeneko nobela saria, aurtzen Jose Luis Alvarez Enparantza «Txillardegia» idazle famaduari emon jako, bere *Elsa Sheelen* izeneko nobeleagaitik.

Juraduko, Gabriel Aresti, Salvador Garmendia eta Ibon Sarasola izan dira.

Sari au, urtero Bizkaiko «Caja de Ahorros»ak emoten dauan diruagaz egiten da: urte batean «Txomin Agirre» izeneko nobela saria, eta bestean «Toribio Alzaga» izeneko teatro saria.

Aurtzen, Euskaltzaindiaren urte ezteguak direala ta, beste 10.000 peseta jarri ditu Euskaltzaindiak bere kutxatik, eta 20.000 pesetako saria da.

Zazpi nobela presentatu dira. Euretari-ko lau oso onak juraduaren eritxiz, eta *Beste izakia* eta *Igesa* izenekoan aurretik gelditu da *Elsa Sheelen* «Txillardegia»rena.

Beioaz gure zorionak idazle bizkorriari.

ELEIZEAREN GAURKOTASUNA

GEROAREN BILDUR

Eleizearen gaurkotasuna, gure kontzientzietan dago. Ez dago euskaldun bat, asko edo gitxi arazo onetaz kezkatzen ez danik. Jazoe-rak or dagoz adierazoteko.

Gure ustez, gaurkotasun onek etorkizun illuna dakar.

Ez dogu guk esaten. Gil Roblesek «*No fue posible la Paz*» bere liburuan autortzen dau: «Si la sinceridad de las nuevas generaciones y la vitalidad del magisterio conciliar no logran rectificar la dirección de esa corriente, el catolicismo español conocerá en el futuro días amargos» (III gn. kap., 54 gn. orriald.).

Zegaitik Gil Roblesen pronostiku garratz ori?

Gil Roblesek berak emoten deusku erantzuna: Gaurko katolikutasuna, eskoitarren eskuetan dagoalako.

Justizia soziala egin nai eban-Giménez Fernández ministruari, «marxista disfrazado» esaten eutsoenen eskuetan (IX gn. kap., 175 gn. orriald.).

Orduko gizon berberak dira gaurkoak, orduko asmu eta sentimentu berberakaz: «La actuación política de las derechas sigue teniendo, por desgracia, una acuciante actualidad» (IX gn. kap., 172 gn. orriald.).

Itxura asko meza eta prozesioetan eta... miiñetan.

Kristiñau ekintza gitxi norberaren bizitzan. «El desajuste o contradicción entre la verdad que se profesa y la conducta práctica en la proyección individual, familiar y social de nuestro quehacer diario, es quizá el mayor atentado contra la fe en Dios y Cristo, su enviado», esaten dau «*Ecclesia*» aldizkariak.

Zegaitik eta nogaitik esaten ditu «*Ecclesia*» itz gogor orreek?

Kristiñautasuna orrelako eskuetan irauten eta azaltzen dan bitartean, Gil Roblesek eskatzen dauan «rectificación del magisterio» etorten ez dan bitartean, euki bildurra geroari, gero illunari!

ETORKIZUN ILLUNA

Era bitara etorri leitekio kristiñautasunari gero illun ori. Edo kristiñau artalde*, makaltzen, gitxitzen eta galtzen joango dalako. Edo kristiñau artalde ori, zigortua izango dalako.

Askok uste ez izanarren, bigarren arrazoi onek, zigorrak, ez gaitu ikaratzten. Zigorrak, ain zuzen bere, ez dauka indarririk ez Elei-

zearen eta ez beste edozein idea sendo baten kontra. Euskaldunak zerbait esan geinke arazo onetaz.

Otsoak eurak be, zigorraren kontra jaigten dira, illarteraifnoko indar guztiekin.

Ez, zigorketa utsak ez dauka indarririk kristiñautasuna lako sentimentu baten kontra. Zigorrak ez dau sekula erlejiñoa galdu erazo. Katakunbak ez eben kristiñautasuna galdu. Ezta komunismuak bere, ez dau egin.

Okerragoa da leenengo arrazoi, zera, kristiñautasuna, agaitik edo orregaitik, pixkanaka pixkanaka makaltzen eta desegiten joatea, gizon baten gorputzik lardenena gaixoaren menpean desegiten joaten dan bezela*.

Orixe da, kristiñautasunari etorri leitekion gero illunik garratzena: Eleizako atea zaballik, barrua... utsik baiña. Bazter guztiak aramu* sare estalduta! Orixe da bildurgarri!

ARTALDEA MAKALTZEN

Gerra aurretik langille geienak, Eleizeagandik urrunduta egozan. Gil Roblesek argi

eta garbi esan deusku. Eta jakiteko motibuak eukazan.

Gerra ostean ez bakarrik langilleak, eskertiar guztiak urrundu dira. Eta eskoitiar asko.

Arrazoi Gil Roblesek berak emongo deusku: «Con la guerra civil el catolicismo español se hizo plenamente militante» (III gn. kap., 54 gn. orriald.).

Jokabide onek, kristiñautasunari eta batez bere euskaldun kristiñautasunari kalte ikaragarria egin deutso.

Ondo konturatuten gara, arlo au labana dala, eta gura geunken legez ezin aztertu leitekela. Batek ez daki zer esan eta zer ez.

Baiña egia or dago, iñok ukatu ezin leiken egia: Gil Roblesek aitatu deuskun «Iglesia militante» orrek, kristiñautasunari kalte aundia egin deusola.

Bai, bildur izan geroari, gero illunari!

HARIZPE

Mexikotarrak ez ete ditue nai izan Olinpi-jolasak?

Mexiko izena guztion agoan ibilli da egunotan. Baiña ez bakarrik, Olinpi-jolasak bertan izan diralako; baita bere, erri zati batek, iskanbilla* andiak sorturik, Olinpi-jolasak eurak ez egiteko arriskuan ipiñi ditualako.

Zer jazoten da Mexikon? Batzuk beintzat, zeredozegaitik ezkonforme dagoz; asko edo gitxi diran ez dakigu, indar apur bat ba daukela jakinarren bere. Baiña iskanbilla* orreik ez ditue egin, Olinpi-jolasak gura izan ez dituelako, seguru asko. Deportek berak orrenbeste arduririk emon ezarren bere, Mexikora jente asko joan da orren atxakiaz; eta ori eurentzako ongarri da, erria zelan dagoan ezagutzeko eta diru aldetik.

Ezkonformetasun ori beste alde batetik dator. Mexikon bere, ba dagoz batzuk, ezkonforme egonarren, euren ezkonformetasuna munduaren aurrean azaldu ezin dabenak, seguru asko. Mundura zabaltzeko bideak galerazo egiten deutseen ezker, burua atarateko erarik ez dauke; eta, ondoren lez, euren eritxi ta asmoak munduan ezezagunak dira.

Dirudiane*, onexegaitik atara ditue

iskanbilla* orreik: Jentea zuur jarri daiten, Mexikon zeredozer illunpean ba dagoala ta; eta illunpeko ori argitzen alegindu ei dira batzuk beintzat. Orrexegaitik nabarmendu dabe auzia.

Gauzak ondo balegoz, ez litzake bide ori bear izango, munduari euren ezkonformetasuna agertzeko; baiña bide guztiak itxita dagozanean, mexikotar orreik egin dabena bearrezkoa izaten da, batzuk illunpean euki nai daben auzia agertu daiten.

Iskanbilla* orreik atara dituenak, gaizkilleak* ete dira? Zentzun bako iskanbillak sortu baditue, edo —auzia munduari azaltzeko beste bide batzuk eukirik— ori egin badabe, ba leiteke izatea. Baiña geiago uste dot, gaizkilleak* Mexikoko arduradunak izango dirala, batzuei euren eritxiak azaltzeko bide guztiak itxiten deutseezalako eta euren asmoak errealdade biurtzen galerazo egiten deutseealako.

Emen dago, nik uste, iskanbilla orreirin sorrerea.

JULEN KALZADA

Gaztediaren indarrari eta buru prestuari* eskerrak, egin izan da Galdakanon, jentek egundo ezagutu ez dauan bezelakoxe euskal jaia. Milla ta milla lagun alkartu giñan, joan zan Mikel Deunaren egunean, Galdakanoko kaleetan. Erritar guztiak parte artu eben zelanbait* jaia gertatzen*; ta orregaitik, erri osoa buru-belarri sartu zan jaiaren barrena. Orrezaz gaiñera, alboko errietatik be, jentea ugari urreratu jakun: gazte taldeak, familia osoak, jai bereizi* onen espirituan euren arima gosetiak bazkatzera*.



«Beti Alai», Ondarroako kantari taldea.

ABESLARIEN SAIOA «REGIO» ZINEMAN

Goizeko amaiketean euskal kantanteen saioa* izan zan Regio zinemaman. Dan dana, toperaiño beteta egoan. Ez dot uste, sekula santa sartu izango zanik alako jentetzarik zine aretan.

Ta mikrofonoaren aurrean, gure artistak, kitarrea eskuan eta abesti baten poesiarekin jantzita, erriari egiak eta eginberrak kantatzen. Abeslariak medio dirala, egunero egunero ainbeste kaskarinkeria entzuten dogunok, ba genduzan gure aurrean, erriari —ta erriaren— gauza serioak naiz alaiak gozotasun eta zintzotasun parebako batekin kantatuko ebezan artistak.

Erriaren bizitza latzean momentu onetan egoki ta premiñazkoa dan lez, gure artistak jentea kontzientziatzera etozan, euren poesiarren indarragaz jente zeia* defendiduaz gaiñera, bere gurarien amesak kantuz azaltzera.

Gure poeta abeslari oneik gogotik salatu* eben jentearen saldukeria, gizakume ardurabakoak zelan saltzen daben giza-duintasuna*, diruaren orde buru-arimak deabruari emonaz, «diru mordo bategaitik euren lur maitea katez lotu dabenok».

Eta zelan itxasoan arrain nagusiak arrain txikia iruntsiten dauan; baiña ez dagoala zetan egin olakorik gizonen artean. Ez dagoala arrazoirik, gizon bat bere anai-gizona baiño gorago egoteko. Itxusia dala, anaieak anaiea zapaltzea, ta aizteak bere aizteari erropak esturik kalcan billoizik desondratzea. Kantante baten abots luzeak esan eutsan dana-belarri zan publikuari: «debruaren gizon batzuek, langilleen odolaz aberastu dirade*». Ta orduan publikuak —ixillean, baiña espirituaren izketan mintzatzuz*— erantzun eutsan: «egia da; baiña ori «kantante» batek olan esatea, siñestu eziña da, ez baitogu* sekula olakorik entzun kantuz. Ta, mesedez, jarraitu egizu orrelaxe Jainkoaren izenean, zure abesti orrek gure jatortasuna asko defenditzen dau ta».

Aretoaren* barruan egozan-eundaka lagunak, konturatu egin ziran artistak eurenak zirala, eurekin pare parean joiazala, kaleetan zear pausu sendoak kontuz egiñaz. Entzuleak eta artistak —oi ez dana— erritar anaiek ziran, eta samintasun triste baten biak batera kantatzen eben «Erria dago negarrez»: golda ta atxur abandonatuen tristurea, buzoen ta praka urdiñezkoen koipe zikin astuna, buru ta arimaz billoiztutako birjiña euskaldunen lotsea.

«Erria dago negarrez», sufrimentuaren kargua aundia da ta; baiña, era berean, erriaren negarrak ez dauka itxaropen faltarik, artistearen laguntzea sentitzen dau ta. Ikusten daualako, ba dagoala bai oraindik kontzientzia jatorra, ta ez dagoala indarririk mundu onen gaiñean, ori galdu eragingo dauanik.

Erria ta artistak alkarregaz alkar entenditzen dira, izkuntza berebera egiten dabe ta: izkera zaarra, Aitorrena, gizon kontzientzia bakoakaitik errukarri dagoana; baiña orain, salbatu ta indartu nai dana. Poeta kantariak esan deutsoe jenteari, euskeraz egiteko, eta eurak eta euren semeak liburu aundietako letrak ikasteko, orretara jakin daigun ea zetarako egin bear dogun euskeraz eta ea zer irabazten dogun orretara.

Eta erria, aintxiñako erri nekaldua, arrituta egoan ikusiaz, bere bereak dituan sentimentuak mikrofonoetatik kantuz azaltzen zirala.

Puntu onetara eltzean, aipamendu* bereizi* bat egin bearrean gagoz «Andra Mari» dantza taldeari. Ederto, mutillak! Zuen dantzeta, ikusgarria izan zan: mobimentuen indarra, jantzien egokitasuna, argi jokoa, ol* otsa edo ezenarioko ol zarateari atara zeuntsoen probetxua, txistularien ritmo gudutarra. Dantza ori ikusi ondoren, ez giñan bapere arritu, zuek Langollen-en ataratako sariagaz.

Era berean aipatu* bear doguz «Deustutarrak» zortzikotea eta Galdakanoko Korala. Biok ondo bai ondo lortu eben euren elburua*. Jenteari atsegin aundiko izan jakozan, eta gogotik txalotuak izan ziran biok. Neure aldetik esango neuskioe bai batari ta bai besteari, euren errepertorioan gaurko kanta barri batzuek sartu bear dituela; esaterako, «Nora», «Mendietan», eta abar. Zorionak, Maximo ta Andonegi jaunak!

IRU-LAU GOGOETA

Nire eritxi apalean, artisteak erri kontzientzia izan bear dau. Nai ta naietzkoa da, artista batek erria bere muiñetaraiño ezagutzea. Orretarako ez da naikoa, jakiña, erriaren geografia ezagutzea, naizta ori be premiñazkoa izan. Ezagutze ori, sakonagoa da. Erriak gaurko egoeran dituan arazo ta gorabeeren barri eukitea da. Artisteak jakin egin bear dau, erri-gizonen benetako negarrak nundik daben euren jatorria; ta erri-gizonen benetako pozak eta elburuak* zeintzuk diran jakinda gero, ze bide artu bear dan eurok lortzeko.

Eta komeni da gaiñera, errealidade osoaren barri eukitea. Au da, erriaren barru barruan diran prolema guztiak ezagutzea, edo euren «totalidadearekin» kargututea. (Arazo au oso luzea da ta, egunen baten onetzaz zerbait idatziko dogula promes egiten dogu.)

Nire eritxi apalez, gure artistak kontuan euki bear leukee base-errietatik kalerako emigraziñoa; ta bardin, Euskal Erriaren egoera ta etorkizunari begira oraindik garrantzitsuago dan erbestetik etortitako emigranteen arazoa. Mesedegarri litzakela uste dot, abeslariak onetzaz zerbait egitea.

Eta, nire gogoetak bukatzeko, zer esan zutzaz, Estitxu, dana barritsu zarean orretzaz? Zer esan zuri, teknikarik eta kantatzeko ma-

EUSKAL JAIA

nerarik oberena* dozun orri? Beñik bein, zure erregintasun orreri deusadan errespeturik aundienarekin esaten deusut, ez dala egia «euskera danik munduko mintzairarik* onena» eta «ez dozula atxiki* nai beste mintzairarik». Orrelako gauzak esatea, ona da bizi garean momentu onetan; baiña erriari egia esatea, askoz ohea da. Eta ezlan be ezin geinke permitidu, gaztedia dantzara eroatea. Ori be, egin bearrezkoa da; baiña ez da ori, gure elbururik* beñena*. Gure il edo biziko elburua, jentea arragoan* eta karabian euren buruak arrazoiz eta zuzentasunez moldatzea da. Ta onetan zure laguntasuna, neurribakoa izango litzake errementari ta karegilleentzat.

UMEEN JAIA

Munduan pazientzia ta meritua iñok badauka, gizaseme orreik Ikastoletako Andereñoak dira. Joan dan irailaren 29-an, Galdakanon alkartu ziran dozena erdi bat edo, euren ikasle txikiak ondoren ebezala. Txalogarria da zuek daroazuen lana, neskak!

Iñun daneko pozgarri da, ainbeste umek euskeraz leitzen ta eskribitzen ikasten dabela jakitea. Ortixek etorriko da Euskal Erriaren salbaziñoa, euskal literaturearen indarra, euskerearen batasuna, eta abar.

Guzti onek, euskal jentea barreneraiño poztuten dau. Baiña ez da ori bakarrik pozgarria. Guzti ori —euskeraz buruak ezitea*, kantak eta ipuiñak ikastea— oiñarri dala, *egi azko* giza-edukaziño bat emotea da pozgarriena.

Ez dogu guk gizonok, olako ardura larregi izaten erropa ta trajeen gorabeeran. Orregaitik, ez dakit azertatuko ete dodan orain jarraian esango dodanagaz: Derrigorrezkoa al da, olako jantziekin umeak euskal jaietara presentatzea? Fantasia pixka bat, gauza polita da; baiña orrenbestekoa? Folklore ta panplinkeria ez ete dagoz alkarregandik urregi?

KARROZEN KALEJIREA

Umeen jaietan jente asko izan zan; goizeko abeslarien saioan* askoz geiago; ta karrozen kalejiran, ostera, marka guztiak onduarte.



Baratzeko liliak, geroaren itxaropen.



«Karroza guztiak ziran zelanbait euskaldunak».

Goizean, erri-meza eder baten ondoren, urreratu jakon abade bat gizon zaar bateri, zigarro bat alkarrekin erreteko asmoz. (Pentsatu egizu, gizon zaar orrek gizon nekaldu baten historia bete dauala.) Eta abade gazteari esan eutsan saludu gisan*. «Jauna, gaur barre-pozak urteten deusku guztioi».

Alaxen zan, izan be. Ainbeste jente ta ain euskaldun giro* jatorrean ikusiaz, errian mundu guztia pozez gafiñezka egoan.

Karroza guztiak ziran «zelanbait* euskaldunak». Baiña guztiz ez bardiñak bata besteagandik. Bakotxak, berak eritxon bat egin eban, bere imajinaziño libreari bakar bakarrik kasu egiñaz.

Uste dot, organizaziñoak aurrez muga edo oiñarri batzuek ipiñi bear ebazala. Au da, base zabal batzuek ipiñi ea ze moduzkoak izan bear daben karrozok. Eta beste alde batetik, esplikatu jenteari —karrozen kalejiran parte artuko dabenei, alegia*— Jainkoaren izenean ez dala derrigorrezkoa «aintxiñako» gauzak presentatzea, gaurko euskaldunak ez dabela ez abarkarik ez blusarik jazten.

Ta, era berean, gaur be ba gagozala euskaldunak, ta karroza batek gaur gaurko irudiak be atara daikezala. Esaterako, ze jatorra izango litzaken pioi bat obra bat altzatzen, edo beargin bat lantegi baten lan egiten, eta abar. Erriari bere gurari romantiku ta ximpleak ezi* egin bear jakoz gitxienez, ta kontuartu crazo begien bistan dituan bizitzako gorabeerakaz.

Bukatzeko, ez daukat besterik esateko, euskal jai ori mundu guztiarentzat guztiz pozgarri izan zala baiño. Segi, gazteak, bide orretatik!

Zaar eta gazteak
asko poztu dira
Galdakanon ikusirik
azkar gaztedia.
Zuekin danak dauke
esperantza aundia,
salbatuko dozuela
Euskaldun Erria.

ANGEL ZELAYETA

Arraintzaleen Kofradiak eta Eleizearen dotriña soziala

Oraindiño denpora asko ez da, Espainiako Obispo guztiak Konferentzia bat egin dabena, eta batzar orretatik dokumentu garrantzitsu bat argitara emon dabena. Atara dau zaratea dokumentu onek, Espainiako periodiku eta aldizkari guztietan.

OBISPOEN DOKUMENTUA

Dokumentu orretan, sindikatuaz eta langilleen alkartuteko eskubideetaz diardue* Obispoak, gai oneetaz Eleizearen dotriña soziala gogoratuaz.

Dokumentu onek, Tarragonan izan dan Kongresu Sindikalari urten deutso bidera, kongresu orretan Espainiako Lege Sindikal barriari buruz artu direan erabagiak ez baitagoz* ados* Eleizearen irakatsi sozialakaz.

Eleizearen dotriña soziala, ez da gauza barria. Leendik dago landuta eta azalduta dotriña ori katoliku guztientzat. Bearbada, luzaro egon dira gure Obispoak ixilik. Baiña orain agoa zabaltzeko adoretu badira, ez da belu. Betor ordu onean, langille guztientzat eta katoliku guztientzat, dokumentu argitsu eta baliotsu ori.

EZ DA POLITIKEA

«Mundo Cristiano» aldizkariak, artikulu interesgarri baten, auxe diño gai* onetaz:

«Obispoak, alkartuta, agirian ipiñi dabe Eleizearen dotriña. Ez da, ba, aren edo onen eritxi bat. Eleizearen barruan irakasteko misiñoa eta erantzunbearra daukenak izan dira, prolema sindikalari jagozozan* irakatsiak gogoratu deuskezuanak. Eta prolema onek, duda barik, justizia eta gizonaren diñidadea ikututen ditu. Beraz*, dokumentu au, morala eta pastoral besterik ez da. Obispoak ez dabe, ba, politikarik egin, kristiñau arau* unibersal batzuk aitatu baiño, soluziñoak emoteko orduan, arauok kontuan euki daiguzan».

NOR BEARTUTEN DAU DOKUMENTU ONEK?

Askatasun andiagaz iruzkindu* dabe periodikuak eta aldizkariak dokumentu onen gaia*, batez bere Organizaziño Sindikalaz daukon zerikusia.

Katolikuak garean ezker, eta Estadia be katoliku agertzen dan ezker, garrantzi andikoa da dokumentu ori, moralki danok beartuten gaitu ta. Espainiako Sindikalismua, Mobimentu Nazionalaren oiñarrien gaiñean altzetan da. Eta Mobimentu Nazionalaren bigarren oiñarriak diño: «Eleiza Santu Katolikuaren dotriñeak... argituko dau gure legedia».

Olan izango ete da oraingoan? Denporeak esango dau. Tarragonako crabagiak eta

Lege Sindikal barria, Madrilleko Kortetan estudiantuak eta diskutiduak izan bear dira, benetako Lege izan baiño leenago. Emen, prokuradoreak euren eritxiak emongo ditue, eta Lege proiektuari bear direan aldakuntzak proposatuko.

ARRAINTZALEEN EGOERIA

Arraintzaleentzako be, zerikusi andikoa da arlo au. Kofradiak, sortu zireanetik ona, orain seireun urte inguru, gobernu eta politika era askoren menpean ari izan dira; eta aldi bakotxean, legeak eta zirkunstantziak agintzen ebezan formetara egokitu bear izan dira.

Gaur eguean, Arraintzaleen Kofradiak, Organizaziño Sindikalaren burpil* bat dira. «Entidad Menor Sindikal» deituten jake. Eta Sindikatu txiki baten antzera antolatuta* dagoz.

Lege Sindikal barriak aldakuntza batzuk ekarriko ditu, duda barik, gure Arraintzaleen Kofradietara.

Puntu bi dira, batez bere, sustraizkoenak erreforma sindikalean: **askatasuna** eta **errepresentaziñoa**.

Obispoen dokumentuak be, puntu bi orretan ipinten dau bere indarra. Askatasun sindikala batez be, «gizonaren eskubide fundamental bat» dala diño.

«Beraz*, Organizaziño Sindikal barria benetan errepresentatibua izango bada, demokratikua izango bada eta langilleen eskubideak errespetatuko baditu, kristiñau dotriña sozialaren oiñarriak onartu bearko ditu», diño leen aitatu dogun «Mundo Cristiano» aldizkariak.

Arraintzaleen Kofradiak, langilleen benetako alkarteak dira, arraintzaleak eura **askatasunean** eratuak eta arraintzaleen benetako **errepresentaziñoa** daroenak.

Orrez gaiñera, **autonemuak** dira; eta arraintzaleen **partizipaziñoa** Kofradiaren arduretara, osoa da, bai ontzi jabeen aldetik eta bai tostarteko* aldetik.

Kofradiak olako birtute onak badaukez, arraintzaleen meritua da. Organizaziño Sindikalak ez dau besterik egin, Kofradiak egokitu eta bere estructuretan sartu baiño.

Ori, eskala lokalean jazoten da.

Eta eskala probintzialean eta nazionalan, zein da Kofradien egoeria? Askatasunean izentatuak ete dira euren ordezkariak? Ordezkeri orreek, errepresentatibua ete dira? Zein da Kofradien partizipaziñoa Sindikatueta?

LIMITAZIÑOAK

Sindikatu probintzialetan bokalak dagoz, bai ekonomikuak eta bai sozialak, arrain-industrietako ordezkarien eta Kofradietako kargudunen artean izentatuak.

Bokal probintzial orreek parte artzen dabe, bokal nazionalak izentatzean. Esan leiteke ba, errepresentaziñoa ba dagoala puntu orretaraiño beinik bein.

Baiña beste txori batek kantatzen dau, karguak ejekutibuak direanean.

Organizaziño Sindikalako lendakaria, Estaduko Buruak izentatzen dau.

Kargu onetarako kandidatuak presentatzeko be, limitaziño aundiak dagoz.

Beste aldetik, lendakari nazionalak beak izentatzen ditu sekretario nagusia, bigarren sekretarioa, obra sindikaletako lendakariak, probintzietako delegaduak eta beste kargu andi batzuk.

Onelan, organizaziño guztiko aparatu burokratikuaren kontrola esku baten menpean dago.

Kofradiak, au da, arraintzaleak, ezin dabe kargu orreek izentatzeko parterik artu.

Gatxa da programa onetan **askatasuna** eta **errepresentaziñoa** ikustea.

Eleizeak esan dau berea, gai* inportante oneri buruz. Arduraduneri toketan jake orain, Eleizearen esana onartzea edo ez. Arraintzaleen eta langille guztien esperantzea baiezkoan dago.

Madrilleko Korteak asi dira lanean. Lan polita, prokuradoreak euren aurrean daukena.

ARTZA



Aurreratuta daukozun dirua gordeteko
BIZKAIKO AHORRU KAJA
dozu onena

Etxe nagusia: Pl. España — BILBAO
Tel. 243600.
15 sukursal Bilbaon

65 sukursal Bizkaiko erri nagusietan
Madrilleko Etxea: I. C. C. A., Alcalá, 27
Tel. 2214995

BIZKAIKO AHORRU KAJEAK

Bilbaon eta Probintzia osoan lanik zabalena egiten dau benefizentzia ta gizarte saillean, eta laguntzarik probetxugarriena emoten dau osasun kontuan.

EUSKERAZKO LEENENGO LIBURUA

IRU IZKUNTZATAN

Euskeraz leenengo argitaratu zan liburua, *Euskerearen Asikiñak**, barrero atara deus-
kue. Eiheralarreko abade batek, Etxepare za-
nak, 1545 gn. urtean egiña da. Ia ez egoan
gogoratu bearrik. Orduko euskera zaarrea
agertu zan, eta orduko jazkera zaarrea.
Orain, jantzi barria ipiñi deutse: oraingo or-
tografian dator. Eta geiagorentzat ulerterre-
zago egin daiten, gure auzoko erdera bieta-
ra —Gaztelakora ta Frantziakora— biurtuta
agertzen da. Eta gaiñeko apaingarri ta guzti
jatoriku.

Neke guztiok artu dira, gure izkuntzearen
leenengo frutu au aalik eta geienen aukeran
ipintearren.

Esan danez, euskerazko zatia oraingo or-
tografian dator, eta puntu ta gaiñerakoz or-
nidua. Lenengoz agertu zanean, ez eukan ez
punturik ez beste olango etengarririk, eta
antxiñako letra zaarrea egoan. Olantxe dago,
oraintsu Bilbaon egin dan argitaldia bere.
Ortik zan askorentzat ain irakurteko gatxa
liburu zaar eta irakurgarri ori.

Konponketa au Lino Akesolok egin deu-
tso, baita gaztelerazko itzulpena* bere. Fran-
tziako erderera biurtzea, René Lafon jaunak
egiña dau. Akesolo berak ezarri deutsoz, gai-
ñera, euskeraz argitasun gitxi batzuk, ber-
barik illunenetan. Mitxelena, euskalari jakin-
tsuak egin deutso, berari jagokonez*, itzau-
re* apain, dotore, sakon eta argigarria.

Agiri danez, Euskal Erri osoak artu dau
lan onetan parte. Bizkaiak egin dau arlorik
andiena Akesoloren bitartez. Gipuzkoatik eta
mugaz andiko aldetik, or ditugu Mitxelena
ta Lafon jaunak. Etxeparek, merezi eban
olango omenaldirik* euskaldun guztien alde-
tik. Bizkaitarren aldetik bere bai.

Zegaitik ez Bizkaiak lan onetan parte artu?
Bere bertso batzuk, Etxepare orren bertso
batzuk, Jaungoikoak daki nongo ta zelango
bideetatik, Bizkairaiño eldu zirean. Azkue
andiak aurkitu ta jaso zituan olako batzuk
Bizkaiko menditarte estu baten, non eta Mu-
relagan, ango andra baten agotik:

*«Kristiñau onak bear leuke jaian jaian pen-
tsadu]
aste guztian zeinbat bidar ein ete daben pe-
katu...]
Kristiñau on bat ilten danean, egiten dabe
bi parte:]
gorputza eroan eleizara ta hurras estalduten
dabe.]
Arima ona ba doia eta nora doan iñok ez
daki...]*

Urteen joan-etorrian zerbait aldatuta, eta
Bizkaiko jasa* artuta dagoz bertso orreik;
baiña ezin ukatu, eurok aspaldiko Etxepare
zaarrea soiñua dakarrenik. Eta olako ber-
tso batzuk aurkitu dira Euskal Erriko baz-
ter askotxotan, mugaz emendiko Euskal
Errian, Olazagutian asi ta Aezkoa ta Sarai-
tsuraiño.

Egia da, norbaitek esan daua: Bertso
orreik ez ete dira Etxepare baiño leenago-
koak? Abade onek ez ete zituan erriaren
agotik entzun eta ikasi? Nik ezetz erantzun-
go neuke. Errian jasotako bertsoak emon
gura izan baleusku, Etxeparek ez ete euskun
bere itzaurrea* esango? Eta ez diño ola-
korik. Berak egin dituala diño. Eta euskere-
aren asikintzat* eskintzen deutsez euskaldu-
nei, eurak irakurri ta kantatzera egin daite-
zan, gogoaren asegarri ta asti-emongarri izan
ciezan.

Merezi eban, bai, Etxepare onek gaurko
euskaldunen artean ezagunagoa izatea; eta
ona non eskintzen jaken guztiei barrero bere
lana, bere liburua, guztien aukeran jarrita,
naiko merke. Gipuzkoako gazte talde batek
artu dau arazo ta ardura au, Edili-ren izen-
pean. Euskerearen alderako asmo zintzo ba-
tek bultz eginda ekin deutse lan oni. Eus-
kerearen onerako. Euskaldun zaar eta barriak

alkar obeto ezagutu daien. Guztiok, gure iz-
kuntzeak emon dituan frutu edo frututxoan
barri obeto ikasi daigun. Gure euskereak,
urteak joan eta urteak etorri, egin dituan al-
dakuntzak ikasteko aukerea euki daigun.

Emen ez dago orain, Etxepare izanaren
merituak goratu bearrik. Jakitun askok egin
dabe lan ori. Eta ez daigun bere liburu au
baztertu, erderakada batzuk ba dituala ta. En-
tzun onetan, kanpoko jakitun baten eritxia:
Euskerearen aldetik, Etxepare benetan idazle
garbia da, itzalean* garbia, beste izkuntza
askoren leenengo frutuen aldean.

Gogoan izan daigun, batez be, bere as-
moa: euskerea biztu ta aurrera atara gurea.
Nok ez dakiz bere bertsoak?

Euskara, jalgi adi plazara,
Euskara, jalgi adi dantzara,
abil mundu guzira!*

Asmo bardiñak erabilli dabez liburu onen
ataratzailleak bere, eta esker onik merezi
dabe euskaldun onen aldetik.

AMUXALDE

ANAITASUNA

Amabosteroko aldizkaria

SUSKRIZIÑO TXANTELA

IZEN ETA APELLIDUA

KALEAREN IZENA ETA ETXEAREN NUMERUA

BASERRIA

AUZO

ERRIA

PREZIOA

Urte onen azkenerarte 30 peseta

Datorren urtearen azkenerarte 105 peseta

IDATZI LETRA ARGIAZ, ETA BIALDU TXANTEL AU
ZUZENBIDE ONETARA:

ANAITASUNA

Torre, 3, 1.º — BILBAO - 5

Euskal musika ariñaren gatxa ta etorkizuna

Aurten Eibarko Sanjoanetan, barri pozgarri bat eskiñi euskuen antolatzaileak*: Euskal Kantuaren Interpretation Jaialdia. Bakarka, Estitxu izan zan garaille; eta taldeka, Pasaiko Oskarbi taldea.

Gaur egunean, Estitxu dogu, duda barik, gure doiñua interpretatzeko doirik geien daukan artista. Internazionalki geien nabarmentzen direan kantakera batzuen menpean aurkitzen da oraindiño. Larregi bearbada. Baiña seguru egon geintez, bere goiko neurriari jagokon euskal musikagille bat aurkitzen dauanean, gure euskal soiñu ariñak ba daukala bere interpreterik gorena.



Pasaiko «Oskarbi» taldea.

Oskarbi, bere aldetik, gero ta gorago ikusten dogu, bai soiñugintzan, bai letrearen grazian eta bai czenarioan moldatzeko erreztasunean bere. Pasaitar gazteok, bearbada, ritmuaren zerbitzuan gogortu ta legortu egiten dabe esakunearen eta euskal bertsoaren berezko soiñu jatorra.

Eibarko Jaialdiaren lerro nagusiak honeski* aztertuaz, uts bat ikusten dogu guztiz garbi, euskal musika ariñak bere baitan* daukon okerra, ain zuzen bere. Eibarko Jaialdiak uts au argitara emon ebalu uste dogu. Gure artean, larregi landu gura dogu artistearen personatasuna. Ta olan kantore larregi agertzen jakuz, bakotxa bere abestiaren kreatzaille; bakotxa, letrearen egille be bai; eta bakotxak, bere kreaziñozko armonia ta ritmuaz lagundurik abestuten dau. Norberekoikeria onek, euskal doiñua murriztera, kateatzera, desegitera ta galtzera eroaten gaitu.

Baldin* gure entzuleak goratu ta sagaratutako* artista oneek, nai geunken apaltasuna baleukoe, mesede aundia egingo leuskioe euskal kantuaren izen onari. Balioko zerbait egin gura dauanari, arrigarri iruditu bear litzakio, persona bategan olerkaritza*, interpretalaritza ta musikalaritza batera egotea. (Onetariko «bateratze» onek, egintza baten asieran konpreni-errezak dira; baiña euskal musikea, asieran barik azieran ikusi gura geunke.) Aitatu dogun umiltasun ori eskatzeko arrazoi larregi daukaguz. Artista orreek autortu daiela, ba direala gure Errian goimailako olerkariak*; eta aintzat artu daiezala daukaguzan musikagilleak bere. Olan, olerkariak* gauzatu egingo dabe euren goi-arnasea, doiñuaren arauak* eta neurriak ezagutzen dituen musikagilleen laguntasunagaz; ta gero, Estitxu ta Oskarbi ta olako kantore batzuen bidez, lau aizeetara zabaldu leitek euskal abestia. Baiña ez, batasun ori egiten ez dan bitartean.

Bide erdi egim dañela, beraz*, bai olerkariak, bai musikagilleak eta bai interpreteak bere. Taldean lan egin bearra dau-

kagu, gure onerako. Bateratu ezkeru bakarrik asi geintez, geure geurea izan bear dauan kantakera seriocki* aztertzen. Au be, egiteko dago. Gure ustez, billatuaz billatuaz aurkitu geintez, orkestatzeko ta instrumentatzeko bear ditugun geure jatorrizko erak eta moldeak. Benetako euskal kantua naziño artean ezagutarazo gura badogu, auxe dogu bide bakarra.

MANOLO URBIETA

(JAKIN aldizkaritik bizkaieraztua)

Dirua eta kulturea

Arrituta nago, eskritore batzuk ze erresponsabilidade eskasa dauken ikusirik.

Bizkaiko eskritore famadua da bera. Oraintsu argitaratu dau liburu guztiz dotorea. Euskalerriko gaiak* erabilten ditu bertan. Ez dot esan gura eskritore onen izena. Ezta, liburua atara dauan argitaldariaarena* be.

Bizkaiko eskritore famadu onek ez daki euskeraz, eta alan autortzen dau. Ez dakiala euskeraz. Bere kasuan beste idazle asko izan ei dira, eta gaur bere ba ei dagoz Bizkaian. Euren izenak jarten ditu.

Baiña leidu ondo, irakurle. Bardin gertatzen* ei da Euskalerriko beste idazle askogaz. Mourlane Michelenak ez ei ekian euskeraz. Jose Maria Salaverriak bere ez. Zubiri filosofu ospetsuak ez ei daki euskeraz. Samaniego, arabar ipuinlari famadu eta Tolosan amazortzigarren mendean* alkate izan zanak ez ei ekian euskeraz. Neuk be ez ei dakit euskeraz!

Au idatzita gero, trunkil gelditu da bizkaitar eskritore famadua!

Arrituta nago. Eskritore orrek ez dauka intentziño txarrik. Niri onore aundia egiten deustalakoan idatzi dau zorakeria ori Bizkaiko eskritore orrek.

Barriro be esango dot. Zurtuta* nagoala, zenbait* eskritorek ze erantzupide* eskasa daben ikusirik. Euren buruak deskalifikatu besterik ez dabe egiten. Nitaz ori esateak, auxe baiño ez dau esan gura: Idazle orrek nire liburuak ez dituala ezagutzen, ezta azaletik bere.

Mourlane Michelena, irundar idazle famadua, Lizardiren goreslea* genduan. Bere azken egunetan, euskal poema bat idazten ari* zan. Jose Maria Salaverriak, euskeraz ba ekian. Zubiri filosofu ospetsuak, ba daki euskeraz. Manezaundi idazle jatorraren loba dogu Zubiri. Eta erderaz idazteko tankeran* igarten jako euskeraz dakiala. Samaniego ipuinlariak, ba ekian euskeraz: Ez dakit, Garagorri filosofuak dakientz. Baiña, dana dala, ez nintzake atrebiduko euskeraz ez dakianik esaten, Bizkaiko eskritorea ausartu* dan legez*.

Pio Barojak ba ekian euskeraz. Berak aiña* euskerazko bertso zaar, oso gitxik jaso ditue. Sail onetan, lan arrigarria berea.

Nik barriz, danok dakizuen legez*, ez dakit euskeraz.

Euskaldun erderazko eskritoreak, guztiz nabarmen* agertzen dau estiloan bere euskaltzetasuna. Bere idazteko tankerea* ez da bardaña. Ezta urrik emon bere. Joskeran* igarten jako.

Gai* cnek beste bide batetik croango ninduke. Ez da ori nire gaurko asmoa. Beste zeredozer esan gura dot.

Esan nai neukena, auxe baiño ez da. Bizkaitarrentzat doa, edo obeto esateko, tilbaotarrentzat. Bizkaitarrek gure kultura gaietara* oso gogoz datoz azkenengo denpora onetan. Guztiz kementsu. Itxurea danez, diru asko dakarre, gaiñera. Diru aparretan* diarduela* ikusten da.

Dirua, oso laguntzaille printzipala dogu. Baiña ez nagusiena. Burua bear dogu argi leenen leenengo. Kultura gaietan* diru asko erabilteak gitxi balio dau, adimen argia neurri berean ez badogu.

JOSE DE ARTECHE

(ZERUKO ARGIA aldizkaritik bizkaieraztua)

ABERASTU ZURE EUSKEREA

Ona emen, ANAITASUNA-ren zenbaki onetan izartzu batez ager-
tzen direan itzen esangurea.

B = Bizkaiak, G = Gipuzkoa, L = Lapurdi, N = Nafarroa, D = danak.

ADITZ (D), verbo.
ADOS (L), conforme, de acuerdo.
AGIRI (BG), documento, comunicado.
AÑA (BG), beste, tanto como.
AIPAMENDU (GLN), aitamena, mención.
AIPATU (GLN), aiatatu.
ALEGIA (GN), ala egia, ciertamente, a saber.
ANITZ (LN), asko.
ANTOLATU (GLN), eratu, organizatu.
ANTOLATZAILLE (GLN), eratzaille, organizador.
ANTZEZLARI (D), actor teatral.
ANTZERKI (D), pieza teatral.
AOLKU (L), consejo.
AOZTU (L), pronunciar.
APAPUAN (B), estrechamente.
APAR (BGN), bitsa, espuma.
ARABERE (B), oraindiño.
ARAMU (B), masmea, masmaua, araña.
ARAU (L), norma, regla, ley.
ARETO, sala, salón.
ARGITALDARI, editor.
ARI IZAN (GLN), jardun, zerbait egiten egon.
ARKI DEZANEAN (GLN), aurkituten dauanean.
ARRAGO (BGN), crisol.
ARTALDE (D), ardi talde, grey, rebaño.
ASIKIN (B), primicias.
ATXIKI (L), tener, retener.
AUSARTU (GLN), atrebidu.
BAITAGOZ (GLN), dagoz eta.
BAITAN, (LN), barruan.
BAITIRA (GLN), dira ta.
BAITOGU (GLN), dogu ta.
BALDIN (D), Ba aurrizkiari indar geiago emoteko erabilten da.
BATZORDE (D), komisiñoa.
BAZKATU (GLN), alimentar, nutrir.
BERAZ (GLN), por consiguiente.
BEIÑEN (B), printzpalena.
JAGOKEZ (B), dagokioez.
JAGOKO (B), dagokio.
JALGI (N), urten.
JAS (B), garbo, desenvolvimiento, aire.
LEGEZ (B), lez, bezela.
MENDE (L), gizaldia, sekulua.
MINTZAIRA (LN), izkuntzea, berbetea.
MINTZATU (LN), herba egin, itz egin.
NABARMEN (D), sobresaliente, destacado.
BEREIZI (GLN), apartekoa, espeziala.
BEZELA (G), legez, lez.
BILDU (GLN), batu.
BUKAERA (GN), amaikerea.
BURPIL (B), errobedea, rueda.
DARIO (D), le mana, le saie.
DIARDUE (B), jarduten dabe.
DIRADE (GLN), dira.
DIRUDIANEZ (D), antza denez.
EGITURA (BG), eglamua, estructura.
EGON GINDEZKE (G), egon geintez.
ELBURU (L), fin, objetivo.
EMEKI EMEKI (GLN), geldiro geldiro.
ERANTZUPIDE, responsabilidad.
ERASON (B), impresión.
GAIZKILLE, malhechor.
GERTATU (GN), jazo, suceder; (B), atondu, preparar.
GIRO (GLN), aroa, ambiente.
GERTU (B), atondu, preparar.
GISA (D), modua.
GIZA-DUINTASUN, dignidad humana.
GORESLE (LN), goretsi edo goratu egiten dauana, el que alaba.
HONESKI (L), honradamente, honestamente.
IRAIL (B), setiembre.
IRUZKINDU (B), comentar.
ISKANBILLA (B), zalapartea, disturbio.
ITZALEAN (B), guztiz, oso, en gran manera.
ERESI (B), kantua, abestia.
EUSKALKI (D), euskal dialektua.
EZI (D), educar.
GAI (GLN), geia, asunto, materia.
ITZAURRE (G), prólogo.
ITZULPEN (D), traducción.
OBEREN (LN), onena.
OLERKARI (D), poeta.

OMENALDI, homenaje.
ONETSI (LN), onartu.
OTS (D), zaratea.
PRESTU (D), noble, honrado, recto.
SAGARATU (D), consagrar.
SAIO (BGN), actuación, ensayo.
SALATU (D), acusar, denunciar.
SERIOSKI (L), seriamente.
TAMAL (B), lastimea.
TANKERA (G), erea, modua.
TOSTARTEKO (B), alogereko arraintzalea.
ZALANTZA (G), dueda, ezbaia.
ZEE, ZEI (D), memudo, sencillo.
ZELANBAIT (B), zeredozelan, zelan edo alan.
ZEMENDI (B), noviembre.
ZENBAIT (GLN), batzuk.
ZURTU (B), zur biurtu, arritu.

JAKIN

JAKIN aldizkariaren xedea
euskerari laguntzea da,
euskerazko kultura egiten saiatzea.

Urteko sei aleen arpide saria: 100 pta.
Alea: 25 pta.

Eskatu:

JAKIN — Arantzazu — OÑATE — Gipuzkoa

FUNCOR S.C.I.

Gaurko baserritarrak bear dituan
MAKINAK

Trituradora — Errota — Naastale — Zerra
Uraga — Uraska

Europako aurrerapenik onenak
emengo baserritarrentzat

Adi ta gomuta

FUNCOR

Arin baizen ondo

ELORRIO (Tel. 114)

Martin Aldazabal

EUNAK

SOIÑEKOAK

AZPIKOIALAK

Emakume, gizon, gazte ta umeentzat
Baita etxerako gaiak, zatika naiz atonduta

Telefonoak: 210484 - 231285 - 231286 - 231287

Tendería, 3
BILBAO (5)

ESTITXU

Estitxu modan dago. Estitxuri kantetan leenengo bidarrez entzun neutsanerako, euskal kantuari aize barri bat ekarri leioliola pentsatu neban. Zegaitik?

Nire ustez, doiñuari baiño inportantzia geiago emon deusagu berbeari, mensajeari, askotan, euskal kantuan. Gure arteko kantore askok exitua badauke, zegaitik dan jakin gura neuke, musikeagaitik ala letreagaitik. Erbesteko batek (euskeraz ez dakian batek) gure artista batzueri entzungo baleutse, baliorik aurkituko ete leuskioe? Sarri egin bear geunkezan itaunak dira. Ta gura neuke prueba egin.

Alde onetatik Estitxugaz nasai egon geintekoz. Manolo Urbietari —musikalaria bera— entzunda daukotsat, atzerriko edozein artistaren pare jarteko modukoa dogula Estitxu. Ta Manolo Urbietari berak eskribidu dau «**Jakin**» aldizkarian: «Gaur



Estitxu

«Euskal musika ariñaren interpreteterik gorena».

egunean, Estitxu dogu, zalantzarikan* gabe, gure doiñua interpretatzeko doaez aberatsena dan euskal artixta. Seguru egon gindezke*, bere goiko neurriari dagokion musikagille bat arki dezanean*, gure euskal soiñu ariñak ba duela bere interpreteterik gorena».

—Estitxu, noiz asi ziñan kantetan?

—Txikitandik. Beti abestu dot, edozein kantu.

—Ta euskeraz kantetan noiz asi ziñan?

—1967-ko abenduaren 24-an, Bilbaon.

—Ta ondo?

—Erason* aundia egin neban. Abesti zaarrak, baiña ezezagunak, interpretatu nituan.

—Aurrera jarraitzeko asmorik badozu?

—Bai, emeki emeki* gora egiteko esperantzea daukot.

—Ze kantu mueta* gustetan jatzu?

—Eresi* klasikua. Abesti modernua be bai. Beti, melodia.

—Eta protestakoak?

—Protesta asko entzun da, larregi.

—Zuk zer emon gura deusazu euskaldunari zure kantakereagaz?

—Nasaitasuna ta gozotasuna emon gura neuskioz.

—Bide egokia dala pentsetan dot; ze sobra be ba dakigu danok, ezpata bat daukogula gaiñean eskegita.

Baliorik ikusten dozu zuk gaurko euskal musikan?

—Bai, ba dago, baiña itzaren aldetik goaz lartxu.

—Zuk orduan, berbeari ez deusazu inportantziarik emoten, edo zer?

—Inportantzia bai, baiña gitxiago. Poesiaren aldetik defenditzen da itza. Mexikoko kantakerea da egokiena, alde onetatik.

—Zer eskatuko zeunke, ba, zuk?

—Euskal musikea, euskal eresia* bear da. Asieran dago gure musikea. Ikusten da. «Oskarbi» asi da bide onetatik.

—Ta zuk zer egin gura dozu?

—Gauza on bat egin gura dot, erriari begira ta kanpokoari begira. Benetako baliotasunaren aldetik jo bear dogu; internazionalizatu egin bear dogu gure doiñua. Ta ori gura ezker, doiñuaren partetik ondo ondo abestu bearra dago.

—Asko ibilli zāra erriz erri?

—Asko, asko; esateko moduan, erri txiki guztietan. Bilbaon ta Donostian be bai. Eibarren be bai, konkursutik aparte.

—Ta giro* ona aurkitu dozu Euskalerrian?

—Giroa, oso ona dago; ondo artu nabe toki guztietan.

—Ez deusue egundo tomaterik jaurtigi?

—Ez, ez; bueno, bai, Laredon, bein. Kantatzera deitu eusten. Pentsatu neban: «Ezagutzen banabe, euskerazko diskoetatik izango da». Asi nintzan euskeraz kantetan, ta ezin jarraitu. Zer izan zan a! Inglesez kantetan segidu neban orduan.

—Zer kantetan dozu?

—Euskerazkoak eta neuk euskeraztuak, beti melodiari begiratuaz.

—Jakin gura neuke. Nun bizi zara, Bizkaian ala mugaz bestaldean?

—Erantzuna, alik errezena da: bietan, Bilbaon eta Bezkoitzen.

—Ekin eta jarrai, Estitxu, ea gure doiñua munduan zear ezagutarazoten dogun.

OSKARBI

Oskarbi. Izena egin dau talde onek. Pasaia Zabalekoak. Zazpi neska-mutillak egiten dabe talde au: 4 mutil eta 3 neska, zazpirak gazte gazteak. Zazpi dirala esan dot; baiña guzurra da, naizta alan agertu jentearen aurrean, Luis Romero be or dago, musikari famadua, leendik be izen andikoa, gizon jatorra ta adoretua.

Oskarbi taldea, ikusgarria da, graziduna; gaztetasuna dario*, eziñegona.

—Zenbat kitarra daukozue?

—Bi.

—Zenbat denpora da, asi ziñeela?

—Urte t'erdi. Gabon batzuetan asi giñan.

—Bearbada, Luis Romerok bateratuta?

—Ez. Zaletasunaren eskabidez batu giñan, ta apurka apurka asi. Geure kontura asi giñan. Gero etorri jakun Romero.

—Erri askotan egon zaree?

—Ainbestetan. Tolosan, Ataunen, Azkoitian, Irunen, ta «Ez dok amairu» koakaz.

—Ta Bizkaian be bai?

—Etxebarrin, Bilbaon, Bermeon.

—Artu dozuen saririk onena, zein da?

—Eibarren, Euskal Erriko taldeen leenengo saria.

—Nik uste, saririk onena zeun sasoia da. Zaarrenak, 19 urte daukoz; ta gazteenak, 17. Sasoia makala! Diskorik bai?

—Laster argitaratuko dogu, «Hegosa»n edo «Belter»en.

—Abesti asko darabilzue?

—15-etik 20-ra dakiguz, ta orreekaz gabiltz.

—Zuen musikea, zeñena da?

—Danona —erantzuten deust Romerok, ta gero diño: Musikagillea, neu naiz. Taldeko mutil batek be egiten dau. Olan kontontzen gara: obra baten egiturea*, eginda eroaten dot; gero, entsaioan, danok batzen gara ta zelan kanta geinken ta zer geiagotu bear jakon ta ori dana, danon artean egiten dogu antxe. Egitura* ori, oiñarria da; orren gaiñean altzetan dan etxea, danona da.

—Konforme. Ze letra modu darabilzue?

—Batzuetan, bertso zaarrak era barri batera kantatuaz. Jentea, arrituta geratzen da. Beste batzuetan, gaurko egoereari jagokon* letrea. Beti ta beti, darabilgun prolemea geurea izaten da, geure erriarena. Ta ori, geure doiñuagaz emon gura dogu.

—Poztuten naiz, ze beste musika batzuk eraginda gabiltz.

Izan be, zegaitik gure prolemak geure musikeagaz agertu ez? Maixu bakarra, Liverpool ete da ba? Puntu onetan bidea Manolo Urbietari ta Zarauzko «Oleskariak» taldeagandik ikasi dabela pozik autortuten dau Romerok.

JOAN MARI TORREALDAY